

5. GOMENDIO BATZUK BILA LEHENENGOZ INSTALATZEN DENERAKO.

- BILA instalatutakoan ireki irakurri gida azkarra. Hona zer dioen, labur bilduta:
 - Lehenengo, ezarpenetara joan eta moldatu BILA norberaren beharrianetara.
 - Bigarrenik, Plataforma hutsik dagoenez, beharko diren ereduak deskargatu, baliagarri daudenen zerrendan hautatuta.
 - Hirugarren, kargatu aitortzaileen datuak: “Aurreko ekitaldietako programetako datuak berreskuratu”.
- Aurreko ekitaldietako datuak berreskuratu ondoren aztertu beharrekoak:

Aitortzaileen datuak, ea errorerik markatuta dagoen.

“Aitortzaileak” atalera joan behar da eta “Errorea” klikatu, zerrendako lehenak erroredunak izan daitezten.

Errorearen sorburua izan daiteke orain arte erabilitako laguntza-programetan izen-abizenak batera agertzea lerro berean. Ostera, BILA plataforman bereizita agertzen dira.

Beraz, gehienetan arazorik egongo ez bada ere, kasu batzuetan gerta liteke BILAK ez jakitea zer den aitortzailearen izena eta zer abizena; esaterako: JUAN JESUS SANTIAGO GARCÍA.

BILAN EGONGO DIREN EREDUAK ETA HAIEN EKITALDIAK Eredua eta ekitaldia ez bada zerrenda honetan agertzen, orain arteko laguntza-programetan egongo da.

Eredua	Ekitaldia
BEZ	2016 (390,391)
	2017 (303,310,322,353)
110/111	2017
115	2017
130	2017
140	2017
180	2016
182	2016
187	2016
188	2016
190	2016
193	2016
296*	2016
345	2016
347	2016
349	2017
603*	2017
720	2016

(*) 296 eta 603 ereduak bakarrik BILAN egongo dira, aurreko urtetan ez bait zuten laguntza-programarik.